

zaldiarri·4

© 2013 Mikel Antza
© Edizio honena: HEA. Gabriel Arestiren etxea

2013ko uztaila

Azaleko eta barneko irudiak: Erramun Landa
Edizio-lanak: Lutxo Egia
Maketazioa: Gráficas RD
Inprimaketa: Gráficas RD

HEA Kultura elkarte. G. Arestiren etxea
posta@eakopoesiaegunak.com
www.eakopoesiaegunak.com
Ea (Bizkaia)

Sumak kawsay

Mikel Antza

Mikel Martinezek eta Iñaki Ziarrustak irakurria
Ean, 2013ko uztailaren 19an

AITZIN-SOLAS

Urte asko dira ez naizela jendaurrean mintzo, eta ez dakit nire solas deslotu hauek zelan adituko diren.

Gaztetan, ekonomiari buruzko liburuak eta egile politiko ezagunenen tratatuak irakurria nagoen arren, ez naiz ekonomian aditua. Ideologia bat zedarritzen duten hastapenak hitzez hitz gorde eta errepikatzeko memoria txarrekoa izaki, ikuspegi dogmatikoen zalea ere ez naiz.

Edonola ere, handik eta hemendik irakurritakoei buruz hausnartu eta denbora-pausan zerbait mamitu dut zuentzat.

Guretzat eguneroko bizitza arruntaren errealitatea, gure baitan gordetzen dugun iragandako bizimoduaren oroitzapen hormatua besterik ez denez, errailetatik kanpo ibiltzeko arriskua hartu dut.

Horretan bederen, bizi dugun aroarekin bat natorrela uste dut: arriskatu eta berritzeko garaiak baitira.

Ongi Bizi

Ez dakit nola ahoskatzen den ketxueraz, euskaraz ‘ongi bizi’ esan nahi duen ‘*sumak kawsay*’.

Harald Neuber-ek BERRIArentzat Rafael Correa Ekuadorko presidenteari egindako elkarrizketa irakurriz ikasi dut.

Hala galdetzen dio Neuberrek: «*Presidente jauna, oraintxe, krisiaren ondorioak jasaten ari dira Europako milaka herritar; batik bat, Zipren, Grezian eta Espainian. Zure gobernuak, berriaz, ongi bizi kontzeptua du helburutzat. Nola bermatuko du gobernu batek ongi bizi ahal izatea?*».

Eta hala erantzuten du Correak: «*Tira, ezin du bermatu, baina eman dezake ankerarik. Baina ez da nire gobernuaren kontzeptu bat, antzinako gure herrietatik datorkegu: aimara (Bolivia) eta kitxua (Ekuador) herrietatik. Kitxua herriarentzat, sumak kawsay da ongi bizitzzea; horren arabera, duintasunez bizi behar da, ez da egunero gehiago lortu nahi izatea, naturarekin eta gainerako gizakiekin harmonian bizi behar da. Horregatik, Mendebaldeko eredu kontsumistaren kritika bat da. Eta horixe lortu nahian gabiltza, ezta? Gure jendea duintasunez bizi dadila, egunero gehiago izan gabe, baina Ekuadorko eta Latinoamerikako biztanle gehienek duten gabeziarik gabe*».

‘Sumak kawsay’ esan eta Ekuador eta Boliviako biztanleen bizitza duina irudikatzen dugu atoa. Duina, baina txiroa. Edo baita ere: duina, beraz txiroa. Edota: txiroa, baina duina. Eta oso ondo iruditzen zaigu. Txalotzekoa.

Ordea, ‘ongi bizi’ esan eta nolako bizimodua irudikatzen dugu guretzat?

Zenbateko soldata?

Nolako autoa?

Zenbat etxebizitza?

Nolako bakazioak?

Zenbat iPad eta tramankulu?

Nolako oturuntzak?

Non bilatzen dugu zoriona?

Krisi garaiotan, gainera, ‘ongi bizi’ esan, eta gero eta gehiago, galdu dugun zerbaiti buruz aritzen gara, (berriro) eduki nahi genukeen zerbaiti buruz. Jelosia eta gorroto amiñi baten nahasketaz esan genezake: «Haiek bai bizi dituk, haiek!» (haiek nortzuk diren izendatu gabe ere elkar ulertzen dugulakoan).

‘Atzera’ egiten ari garen sentrazio bitxi hori. Mendian gora gailurrerako bidaldian bat-batean norbaitek bultzatuta maldan beheara zilipurdika balaztarik gabe goazenekoa. Jadanik ez garela ongi bizi, ez lehen bezain ongi bederen. Eta okerrago biziko garen mehatxua Damoklesen ezpata zaigu.

Galdu dugunaren inbentarioa egin, eta horien guztien artetik zeintzuk diren benetan ezinbesteko ohartzea (gure bizi-mailaren oinarrian dauden hareazko zutabeez jabetzea) ariketa gordina da.

Tamalgarriena zera da: ‘ongi bizi’ esan, eta ez garela gai norberarentzat ez ezik, ‘mundu osoarentzat’ ere (ketxuarrak barne) jasangarri litzatekeen etorkizunik

irudikatzeko. Kontinentez eta jendarte-mailaz sailkatutako ‘ongi bizitze’ desberdinak barneratuta ditugu. Oinordekotzan jaso ditugulako, nonbait.

Ez gara gure arbasoen
gehiegikerien
arduradun,
bai onuradun,
europar,
euskaldun.

Ketxueraz *sumak kawsay* esaten trebatu beharko, gure *bizimodua* ongizate-estatuaren atzaparretan saldu (barkatu, galdu) genuenez gero.

Euskal gazteak dena utzi eta engaiatzen zirenean, hurkoak eta urrunekoak harritzen ziren, ongi bizitzeko moduko ikasketak edota lanbideak izanda, aberriaren aldeko borrokagatik etorkizun oparoa izateko aukera albo batera uzten zutelako.

Estaturen aurka jazartzerakoan, ordea, herriak eta herritarrak zanpatzea ahalbidetzen duen sistemaren aurka ere altxatzen dira euskal gazteak (gaur egun horrela esateak kirrinka egiten badigu ere gure belarri birfinduetan).

Borrokara lotzen den gazteak, ordea, ez du bere uneko eta etorkizuneko ongizatea bertan behera uzten.

Ez baitu indarrez indarrean dagoen gizarte eredu hau nahi.

Ongi bizi nahi du borrokara lotzen den gazteak, bai. Elkar ulertzeko, sumak kawsay nahi du gazte borrokalariak. Agian, zer den zehatz-mehatz jakin gabe, baina bederen gaur egungo Mendebaldeko jendarte kapitalistak eskaintzen dion hori ez dela jakitun.

Sumak kawsayren aldeko borrokan libre izaten ikasten da, ez jainko, ez errege eta ez jauntxo gainean eduki gabe.

Borrokan, Ekuadorko kitxuek eta Boliviako aimarek bezala ongi bizitzen ikasten da, duintasunez, egunero gehiago nahi gabe, naturarenganako harmoniaren bila.

Urruntasun honetatik suma daiteke sumak kawsay zaleak uste baino gehiago direla gaur egun, eta, sistema kapitalistaren hamaikagarren eraldaketari aurre egin eta orain artean urratu gabeko bideetan aurrera egiteko, inoiz baino prestakuntza hobea ere badutela.

Ongizate Gotorlekua

Egunkaria zabaldu eta, lehen ez bezala, bere buruaz beste egiten duen jendearen berri izaten dugu maiz.

Langabeziako ordainsaria kendu diotelako, langabezia-bulego aurrean bere buruari su eman dion langile ohiari buruzko berri lazgarria; etxea desjabetu behar ziotelako, balkoiko langa gaituta jauzi egin duen etxeoandarearen berri etsigarria.

Protestak antolatzen dira, elkartasun eta dolu agerpenak egiten dituzte auzotarrek.

Kiskali aurretik,
aireratu aurretik,
jaramonik egiten ez zion jendeak ere
hurbiltasuna sentitzen du
larriminak itotako jendeagatik.

Bai, azken bost urteotan, sakelak eta kontu korronteak hustu ahala, besteren odolez, gosez eta paterez eraikitako gure Ongizate Gotorlekuaren murreraz zaindariak pitzatu ahala, neoliberalismoaren (kirrinka) mozorropean gordetzen den betiko kapitalismo zaharraren (kirrinka) biktimen azalean jartzeko gure gaitasunak gora egin du.

«Boladak dira», pentsa genezake. «Pasatuko da».

Bai, baina pasatuko dena horrelako berriak egunkarietan irakurriko dugun aroa izango da, ez besterik. Gero eta garrantzi txikiagoa emango dietelako; desagerrarazi arte.

Apailatuko digute hedabide nagusien ugazabek beste gairen bat, errealtate gordinari ihes, *Gran Hermano* eta *Les Anges de la télérealité*ekin nahas, gogotsu narkotizatzen jarrai gaitzaten.

Eta beste gerraren bat antolatuko dute gure oldarraldia epeltzeko eta beren botere ahalguztidun larderiatsua erakusteko, Ipar Korean edo Iranen, ez bada hurbilago, eta bonba atomikoz beteko dira gure ametsak, itsasoak arrain erradiaktiboez bezala.

Jakina baita, ekonomia berrabiarazteko odolez olioztatu behar dela tarteka sistemaren makineria herdoildua (kurrinka). Historiak ez digu horretan gezurrik esaten.

Eta puska baterako bolada txarra dugula ohartzean... otoitz ere egin genezake.

Hasi ote dira berriro ere betetzen elizak?: «Ama estatua zeruan zarena, izan erruki!».

KIRRINKA ZARATATSUA: [«Dena dela, krisian batzuek baino ez gara bizirik? Horregatik hartzen diot batzuetan antzerki itxura bizirik dugunari. Diruaren, baliabideen, errentagarri izan daitekeen ororen desjabetze sistematikoa gertatzen ari den bitartean, horren arduradunak lasai asko dandela ikusleen aldean jesarrita, begira, beraiek sortutako ke erridaneak babestuta, ikusez in guretzat. Eta gu, haiek sortutako

kezka, lan-krisi, gaixotasun eta zerrikeria guztiei aurre egiten saiatuz, batzari begira, ilargia abaztuta. Baldintzatuta, gertatzen denaz jabetzeko adorerik gabe»].

Joandako garairik ez da bueltatzen
Ongizate estatua desegiten ari da
ez du inork zalantzan jartzen
ez gara bitan erreka-ur berean bustitzen
ez da pasatuko den bolada txarra
(behi gizenen eta behi meheen kondaira hori:)
(batzuentzat beti gizen)
(kapitalismoaren krisi ziklikoen kontu hori:)
(batzuontzat beti mehe)
Oker geundeke pasatu beharreko bolada txar
luze
(luzeegi)
baten aurrean gaudela usteko bagenu
honek gero eta Uholde Handiaren itxura handiagoa du
(Noeren espazio-ontzirako txartel urriak garesti daude)
joandako garairik ez da bueltatuko.
Ongizate estatuarenak egin du.
akabo *el Estado de bienestar*
fini da *l'État providence*
amaitu da *the Welfare State*.

Baina pasatzekoa balitz ere
oker egingo genuke lehengora
itzultzearekin
amets egingo bagenu.

Morrisen *English-Basque* hiztegiaren arabera, AEBetan behartsuentzako diru-laguntzari ere esaten zaio *welfare*.

Yankiek asmatu zutenek kontua, beraiek jakingo dute inork baino hobeto: ez ginen, beraz, ‘ongizate-estatuaren’ magal gozoan bizi. Baizik eta kapitalismoak gogo txarrez, behartuta eta asmo maltzurrez emandako eskupeko pozoituari esker bizirauten (kirrinka!, kirrinka!).

Gure iraultzaile kontzientziarekin foie-grasa egiteko galkatu gaitu hamarkada luzez ongizate-estatu guraso-ordeak. Munduan zehar bere zeregina burutzeko eskuak aske utz geniezazkion. Beste aldera begira genezan.

Eta beste aldera begiratu dugu:
goseak,
hondamendi humanitarioak
eta gizaki itxurarik
ez zuten
gure hurko zarpailduak,
Pulitzer argazkiei esker
oroitzen ditugu
(oroitzekotan).

KIRRINKA: [*Gebitu merke erosi gaituztela, merke saldu dugula gure kontzientzia (iraultzailea)*].

Eskubideak eskuratu genituelakoan al geunden, bada? Lortua al genuen askatasuna, ala? Ez al da, bada, iragan mende oso-osoan betiko Nagusi odol-gose bera egon agintean?

Eta zertan aritu gara gu?

Komunistak, anarkistak, boltxebikeak, mentxebikeak, estalinistak, maoistak, troskistak, sozialdemokratak, euro komunistak, komunista-komunistak, komunista berregituratuak eta berraragituak, komunista kontsumistak, ero komunistak, ezkerreko fronteak eta ezkerreko abertzaleak.

Denok arrazoi.

Denok ala inork ez.

Denok ezin.

Inork ez.

(=) Haiek.

Arrazoiak jabetzeko eztabaidan ari ginen bitartean, gure etorkizunaren hipoteka ongizate-estatu kapitalistaren beso loarazleen zaintzapean utzi genuen. Parking-lekuagatik ordaindu beharreko interes apalarekin susmo txarrik hartu gabe. Lepo zorpetzeraino (gehitu bospasei kirrinka).

Puxika eztandaraztea erabaki duten arte: akabo festa!
Ez da gehiago fandango!

Ez dezagun-eta ahantz (bai, kirrinka): «*Krisian batzuk baino ez gara bizji, e?*».

Zer ginen eta zer bilakatu garen.

Non geunden 1911n Nueva Yorkeen langileak kiskalita erre zirenean?

Eta zer egin dugu 2013an Dhakan josten ari ziren janzkia krobitxet bihurtuta zeremonia eta otoitz beharrik gabe bat-batean laurehun hasieran, bostehun gero, bederatzihun eta hamalau, mila eta berrogeita bi lerro hauek idazterakoan, erraz esaten da, langile lurperatu dituztenean?

[«*Sinesgaitza! Langile bat bizirik atera dute hamazazpi egunen buruan*»!, eman du berria bozkarioz esatariak. Film errentagarri bat egiten pentsatzen ariko dira Bollywood-en, apika]

Zer aldatu da 1911tik 2013ra? Ehungintzako beharginen jatorria eta azalaren kolorea besterik ez?

Ez noski, bi Mundu Gerra eta hamaikatxo eskualdegerra odoltsu ere antolatu ditu sistema kapitalistak (kirrinka) langileria, kanoi-haragi xehe (karranka), beratzeko, iraultza grina itzaltzeko, mundua bere asegabetasunaren neurrira josten zuen artean.

Egoera larria da, bai. Lan ministerioetan muturreko neurriak hartzeko *brain storming*-ak antolatu dituzte honezkero.

Hara! Aurkitu dute berriro ere langabezia bulegoen aurrean horrelako gertakari desatseginak gerta ez daitezen ekiditeko modua: ke-detektagailu eta su-itzalgailu bana paratuko dituzte (bidenabar, ke-detektagailu eta su-itzalgailuen industriak sustatuz eta su-hiltzaileen postuak eskainiz, ekonomiaren estatistikek itxura hobea erakutsiko dute).

Bankuek ere hartuko omen dituzte neurri zorrotzak: etxearen hipoteka sinatzerakoan paraxuta epe erosoetan eskuratzeko aukera ere emango dute (kolore aukera zabalarekin, gainera!).

Duela bi urte, beheraldiaren amaiera iazko iragarri baziguten, iaz, krisialdiaren hondoa aurten joko genuela esan ziguten, eta aurten datorren urtekoa izango dela krisia hasi zenetiko urterik txarrena.

Bi urte barruko aurreikuspen ilunak idatzita dituzte jadanik.

Zozoenok ere ulertu dugu: oraindik ere nondik murriztu ba omen dagoenez, eta jendartearen jasangarritasun gaitasunak ez omen duenez mugarik... Amaiera ikusten ez zaion krisi-txirristan behera zorabiatzen hasita, ulertzen hasiak gara, bai, arpilatzeak jarraituko duela: oraingoan mozorrorik gabe.

Zozoenok ere ulertu dugu:

jendeak

bere burua sutzen,

botatzen,

itotzen jarraituko duela.

Eta biziraun nahi duenak

Bere etxea

(bere lanpostua)

(bere kontu-korrontea)

defendatu beharko duela

(ahal duenak salba dezala)

lehen Sahararpekoen aurka bezala

(ahal duenak zanpa dezala)

orain auzokoen.

Gotorlekuaren hormak berreraiki
txiroen kontra
atzapar zeken
immigranteen kontra
hortz zikoitz
besoak aski ez bazaizkigu
arma gaitezen
bazokez
eta
gasen aurkako maskarez.

Kartzelak ez daude krisian

Egunkarietan ez da agertzen kartzelan pilulak hartuz, kordel batetik zintzilik, zainak moztuz, ziegari su emanez bere buruaz beste egiten duen jendearen berririk apenas.

Kartzela berriak eraikitzen ari dira presaka. Hemengo bolada hau ere ez daukagu amaitzear.

Borra eskutan hartzen ez duenak bizkarrean bilduko du.

Andana ekarriko omen zaituztete auzotar.

Lehen
kartzela jendartearen
zabor-leku zen
estatuaren diru-xahutze alferrikako.
Orain,
hondakinak birziklatu beharrik gabe
irabazpide bihurtu gaituzte
krisi garaiotan
enpresa pribatuak
jabetu dira gure bizitzaz
hemen (ere)
gero eta zorrotzago zainduak,
gero eta txarrantxa gehiagoz inguratuak,
leihoetako barroteak aski ez
eta sareekin laukitutako ikusmira dugu:
Ikusiren zaintza-kamera bi,
zortzi bider bost metroko patioa zelatatzeko
Fagor hozkailuaren

eta Samsung telebistaren alokairua
17€ hilean.
Boyguesek eraikina
Eurestek bazka
Errepublikak zaindariak eta presoak
Zein da negozio honen trikimailua?
Zer ekoizten dugu kartzelan?
Zenbateko gainbalioa sortzen du gure minak
burtsan?

* * *

Karim naiz. Aldiriko gazte bat. Dagoeneko hiru aldiz egon naiz kartzelan. Lehena, auzoko gozotegian lapurtzeagatik. Bigarren aldirian, haxixa trafikatzegatik. Hirugarrenez, banketxe bat lapurtzen saiatzeagatik. 21 urte ditut, bi haur.

François naiz. Hiri erdigunean jaio nintzen. Goi-mailako ikasketak egin nituen. Lanbide ondo ordaindua lortu nuen. Ezkondu nintzen. Hiru haur izan genituen. Dibortziatu ginen. Hona ekarri ninduten akusazioak faltsuak dira goitik behera. Zin dagit. Lanetik kanporatu ninduten baina errugabea naiz. Ez dut inoiz inor bortxatu.

Djamila naiz. Mutil-lagunari labanez eraso egiteagatik atxilo hartu ninduten. Dagoeneko buruaz beste egiteko bi saio egin ditut. Nire haur txikia gabe ezin naiz bizi. Kartzelako buruak lan egitea eskaini zidan. Onartu nuen, ziegan hogeita bat ordu itxita ez emateko. Sotoan dauden atelierretan aritzen naiz, astean bost egunez, goiz eta arratsaldez, hilean

300€ jasotzeko, burumakur, kartoiak tolesten, lurrin-gozoko flaskotxoak edo txokolatetxoak kutxetan sartzen. Horrekin doi-doi ordaintzen ditut kartzelako janaria hobetzeko kantinatzen dudana, garbiketarako behar ditudanak, zigarretak (berriro hasi bainaiz erretzen) eta telebistako hileroko 8 euroko alokairua.

Florence naiz. Hiru haur ditut. Nituen. Kendu egin dizkidate. Nik haiei jaten eman besterik ez nuen nahi. Senarrak alde egin zuen. Ez dakit nora. Badakit norekin. *Secours Catholique*-an ez zidaten haur batentzat baizik laguntza ematen. Krisia, esaten zidaten. Ez dut gurasorik. Ez dut seniderik. Bakarrik nengoen. Ama gaiztoa naizela esan zidan lehengoan zaindarien buruak. Hobe nuela haiengan pentsatu egin nuena egin aurretik. Orain umezurztegian nirekin baino hobeto egongo direla. Nik, ordea, gaez ezin dut lorik egin. Pilulak hartzeari utzi eta kirola egiten saiatu nintzen. Nola zainduko dut nire burua nire niniez ezin banaiz arduratu. Txikitxoa sehaskan goxo lo dagoen ikustera jaikitzen naiz sonanbulu. Ziega-kideak errieta egiten dit, ni naizelako berari lorik egiten uzten ez diona; hobe daudela haurrak dauden lekuan. Hemen banatzen duten jatekoa irensteko gizagaindiko ahalegina egin behar nuen. Nire txikiez oroitu eta urdaila uzkuratzen zitzaidan. Eguna ematen nuen negarrez. Hiru egun daramatzat jan gabe. Ez, jan gabe gehiago daramatzat, baina duela hiru egun esan nion medikuari ez nuela pilula gehiago hartuko eta jateari utziko niola. Psikologoari azaldu diot nik ez diodala inori kalterik egin, nire hurrei jaten eman behar niela, hori dela ama baten betebeharra. Lana bilatzea ez ote nuen pentsatu erantzun zidan, eta paperezko musuzapi bat eta hurrengo hitzordua eman

zizkidan agurtu aurretik. Lotsa ematen dit aldi batez prostituta ibili nintzela esateak.

* * *

Hona ikustera etortzen zaigun jendeari galdegiten diot: «Eta? Nabari al da krisia?».

Bai nabari da.

Lehen sekula aipatu ez eta orain gero eta maizago izaten dugu honako joan-etorriko bidaia-txartelen salneurria mintzagai.

Bai, guk ere nabari dugu krisia.

Arrautza dozena erdia 0,90€, patata kiloa 3,76€. Salneurriak laukoiztu egin dira, kopuruak murriztu. Kiwiak erosteko modurik ez dago, 6 euroan dago kiloa.

Dirua dutenek erre dezakete, fruituak, freskagarriak eta sukalde elektrikoa erosi eta, kartzelako bazka zakarrontzira botata, espageti goxo batzuk egin.

Askok eta askok ez dute ezer erosteko ahalmenik.

Hemengo hau al da lumpen proletalgoa?

Brigatte Rose-koek beren burua jendarte-presotxiroenen mailan kokatzeko, uko egiten zioten kanpotiko diru-laguntzari eta kartzelak emandakoarekin baino ez zuten bizirauten.

Eta hemen barrukook, zertan gara iraultzaile?



Galdutako Klase-Kontzientziaren Bila

«Klase-kontzientzia berreskuratzeko esfortzua egin behar dugu», irakurri dut txosten batean.

Klase-kontzientziaren berreskurapena norberak bere txokoan burutu beharreko ariketa ote da edo ikastaldiak antolatuko dituzte alderdiek eta sindikatuek?

Ez du horren argibiderik ematen txostenak.

Ba al dago oraindik marra batez bereiz daitekeen klaserik?

Beste txosten batean aurkitu dut argibiderik:

«[Kapitalismoak] dirua ezartzen du jendartearen ardatz, hura lortzeko bidea lehiakortasun bortitza, indartsuenaren legea, denbora dirua denaren ideia, indibidualismoa... sustatuz».

«Jendarte bi klase nagusitan banatuta dago, nahiz eta bi klase hauen banaketa ez den hain garbia gaur egun. Kapitalismoak berak, denboran zehar eta hainbat mekanismoren bidez, marra hori nolabait difuminatzea lortu du, eta ia bereiztezin bilakatu. Izan ere, gaur egun produkzio baliabideen kontrola gutxi batzuen esku badago ere, badira eskala txikiagoan gainbalioaz langileriaren lanaren etekina aterata aberasten diren tarteko zapaltzaileak ere. Beraz, esan genezake handitik txikira doan graduazio antzeko bat dela, guztioek maila altuagoan edo baxuagoan zapaltzaile eta zapaldu egiten gaituena».

* * *

Guztiok ote gara zapaltzaile? Guztiok ote zapaldu?

Gogoratzen dut txikitan aitak esan zidala bizitza honetan zapaltzaileen aldean edo zapalduenean egotea beste erremediorik ez zegoela.

Donostiako trenbidean ingeniari aritzen zen garaiez ariko zitzaidan.

Nagusiek ematen zizkioten aginduen arabera zapaldu beharko zituen bere menpekoak. “Beste erremediorik” ezean. Zepoan harrapatuta zegokeen ordurako, sendia osatuta, haurrak hazi beharra. Bi suren artean sentituko ote zuen bere burua?

Trenbideko torloju solte batzuegatik galdu zuen lana. Eta dena. Askatasuna.

* * *

Oraindik klaserik dagoela ontzat emanda, beraz, zein klase-kontzientzia berreskuratu behar dut?

Izan al dut inoiz klase-kontzientziarik?

* * *

Klase-kontzientziarena ez ote hezkuntza kontu bat? Edo jaiotzak eta bizi-baldintzek erabakitzen dute norbera zein klasetakoa den?

Eskoletan irakatsi behar ote da jendartean klaseak daudela? Eta 'haiek eta gu' daudela?; eta nortzuk garen gu eta nortzuk haiek?; eta haiek gure kontra eta gu ezinbestean haien kontra gaudela?; 'haiek eta gurik' gabeko jendartea dela helburua?

* * *

Aurkitu dut nire klase-kontzientziaren ernamuina:

Zubieta kalean bizi ziren aberatsak.

San Bartolome kalean pobreak.

Gu erdian bizi ginen, San Martin kaleko etxebizitza bateko seigarren estaian.

Auzoan jolasean ari ginela, Zubieta kalean bizi zen mutikoarekin erronka, nor baino nor, bere gailentasuna erakusteko automobil kontuetara eramanezuen eztabaida, beren autoa gurea baino hobea zela, merkatura ateratako azken modelo erosi berri baitzuen. Gurea hirugarren eskukoa zen eta malkotan bukatu nuen.

Pobre eta umiliatu sentitu nintzen.

Beranduago ohartu nintzen San Bartolomekoek autorik ere ez zutela.

Noren klasekoa nintzen orduan?

Eta orain?

* * *

Eta giltzapean gauzkatzen hauek gure klase berekoak ote dira?

Edo haien klasekoak dira?

* * *

Hainbat galdera *Galdutako Klase-Kontzientziaren Bila*:

Aitak egindako oharpen hori kontuan izan ote dut?

Noren aldera egin dut?

Zapalduen aldean egonik ere izan al gaitzke zapaltzaile?

Beste erremediorik ezean al gara klase batekoak edo bestekoak?

Zerk egiten gaitu klase bateko edo besteko?

Norekin nago ni?

Pospoloen gisa sutzen direnekin,

ahateen gisa galkatzen direnekin,

sagar onduen gisa jauzi egiten dutenekin,

fruitu estrainioen gisa azken hatsa dilindan ematen dutenekin?

Zer egiten dut horretarako?

* * *

Harrisonek ez, beste Ford batek, Henryk, lagunduko digu altxorraren aztarna aurkitzen:

1937 eta 1941 bitartean Henry Fordena izan zen negozioazio kolektiboan sindikatuen ordezkari ofiziala onartzen ez zuen ibilgailu-enpresa bakarra. Lan Harremanetarako AEBetako epaitegiak legea behin eta berriz urratzeagatik kondenatu zuen (entziklopediak ez

du esaten zein izan zen kondena, beraz, huskeria izan zela eta loa ez ziola galaraziko ondoriozta daiteke). Azkenean, Michiganeko River Rouge-ko Forden lantegi nagusiko langileek 1941eko apirilean egindako grebak arrakasta izan eta kontratu erdua negoziatu behar izan zuten.

Garai bertsuan, gurean, Marcelino Oreja Elozegi, guk ezagututako izen bereko politikoaren aita, Forden sokako enpresaria zen: «1933ko hasieran, [...] Administrazio Kontseiluko presidente moduan Union Cerrajerara sartu izanak, estilo aldaketa ekarri zuen enpresa zuzendaritzan; atzean utzi zuen estilo paternalista eta agintean oinarritutako zuzendaritza batera pasatu ziren; horixe zen oinarritzko printzipio bakarra».

Estilo aldaketa hori zer nolakoa izan zitekeen irudika dezakegu, baina hobe ulertuko dugu 'estilo berriaren' nolakotasuna erakusten digun pasadizo batekin. Horrela kontatzen zigun Garratzeneko Joxepa Arregi zenak: «Zerrajerako ugasabak, Orejak, ikusi juan obrero bat periodikue leiruten eta esan juan: 'Zer? Obrerue periodikua leiruten? Nik erakutsiko jotzat horrei belarra janda bizi izaten!».

34ko iraultzan langileak armatan altxatu ziren eta Arrasaten Oreja eta beste enpresari batzuk atxilo hartu zituzten. Hark esandakoa ahazteko ez zuten... «jan eragin jutzien bedarra Orejari». Eta gero tiroz hil zuten.

Dударик gabe, klase-kontzientziak eta klase-gorrotoak argi zeuden garaiak ziren.

Lehen errazagoa ei zen: zu hor eta ni hemen.

Eta orain?

Warren Buffet

Iritsi da Warren Buffet aurkezteko ordua.

Warren Buffetek dio: «Badira hogei urte klaseak elkarren arteko gerran ibili direla... eta nireak irabazi du».

Warren Buffetek argi du: klaseak egon badaude.

Warren Buffetek argi du: klase borroka dago. Are: klaseen arteko gerra egon da!

Alegia, hildakoak eta zaurituak egon ohi diren gatazka mota.


Warren Buffetek zera ere badu argi: bera lubakiaren alde batean dago.


Warren Buffetek akats asko izango du agian. Bertute bat badauka bederen: argi hitz egiten du.

Eta hori beti da erakargarria.

Bada, ordea, Warren Buffeten hitz egiteko moduan zerbait bere lubaki berean, ukondo z ukondo pareko lubakietakoei metrailadorez tiroka aritzeko gogoia hozten didana: harropuzkeria.

Edonola ere, utz diezaiozun amets egiteari, nahita ere ezingo genuke-eta Warren Buffeten klasekoa izan, eta haren alboan, arrazako zaldiek tiratutako gurdian zut, Zesarren garaipen arkupetik igaro masa sukartsuak





axolagabeki agurtuz, nolako inbidiaz begiratzen duten ikuste hutsarekin sentitzen duen orgasmoaren lekuko izanez.

Warren Buffet, Berkshire Hathaway konpainiako presidente eta munduko pertsona aberatsenetakoa baita.

‘Buffet’ hitzak ingelesez zaplaztekoa ere esan nahi du, eta Warrennek bofetadak titaniozko eskuz ematen dituela erakutsi digu.

Warren Buffet (berak aitortu digu) munduko hiltzaile handienetakoa da. Nik ez dakit kalkuluak eginak dituen, baina hogeitaz irauten duen gerra batean kaltetu asko egon behar da, hildako eta zauritu asko. Eta gerra irabazi dutela esateko duen moduagatik ez dirudi beren lerroetan baja asko izan dutenik.

Warren Buffetek hogeitaz urteotan pilatu duen dolar bakoitzak zenbat hildako behar izan duen kalkulatzeko ezinezkoa izan behar da.

Batek, biziraupen senez, Ongizate Gotorlekuaren babesik gabe gelditzen ari garen honetan, Warren Buffet dagoen lubakian egon nahi luke. Horrelako ziurtasunez hitz egiten duen buruzagi bati jarraitzeko. Eta ez soilik haren klaseak irabazi duelako (hori ere erakargarria bada ere), baizik eta gure klaseak, zapalduenak (kurrinka?), asmatu zutenetik, galdu besterik ez duelako egin.

Ez ote gintuzten horretarakoxe asmatu:

Gal genezan,
garaitu gintzaten,
garaituak izan gintezen,
irabaz zezaten,
gure odol eta izerdiarekin
(gainbalioa deitzen zaio horri, dagoeneko berrikasia
behar genuke)
beren garaipen-festetako xanpaina eta kabiarra ordain
diezazkiegun.

Eta pitxiak
eta
(hirugarren eta laugarren)
etxeak eros ditzaten,
eta jet pribatuetan munduan zehar bidaiak
eta beste inorena baino askazia ederragoa
haz eta hez dezaten.

Bizia
gal genezan,
ken ziezaguten.

Warren Buffetek soraio begiratzen gaitu sutzen
erortzen itotzen garenean, kikilduta hil bukaerako lan-
saria, lotsaria, jaso eta txintik atera gabe goazenean,
apurka-apurka bizitza izendatzea merezi ez duen
biziraupen anestesiatuaren maldan behera.

Orejaren aholkuei jarraiki, Warrenen buffetean
bedarra besterik ez dago periodikue leiruten duen
langile jendearentzat.

* * *

Margaret Thatcher-en heriotza xanpainez ospatzen ikusi dugu irlandar herria, britainiar langileria. ‘Up the IRA!’ ikusi dugu hormetan, ‘herdoil hadi *Burdinazko Dama!*’ idazkunaren alboan.

Zorionez, guri esatea debekatu eta gaur politikoki zuzenak ez direnak esanda utzi zituen poetak: «Eta zer dago gauza libreagorik armetan dagoen herria baizik?».

* * *

Bart amesgaiztoa egin dut:

Ezantza burutik behera botatzen ari zen langabetuari surik ba ote zuen galdezka ari zitzaien bankariak bizkarrean zeraman afixak “klase-kontzientzia berreskuratzeko esfortzua egin behar dugu” zioen.

* * *

[«*Ezjin dut kendu burutik XX. mendetik gaur arte biharko eguna hobe izango zela sinetsita nola hartu dugun parte gure gainbeheran: lurrak eta urak alferrik galdu eta pozoiu, elikadura deitzen diogun janaria lortzeko ezindu funtzionalak bihurtu gara (saltegi handia edo gosez hil!), gure ikasketak, lana, interesa... guztia dirua pilatzeari bideratuta... »].*

* * *

Esnatu egin naiz:

Klase-kontzientzia berreskuratzeko esfortzua egin behar dugu, bai, elkarri zeharka begira ibili gabe, hurkoak azken bakantzak non pasatu dituen, nolako etxea ordaintzeko hipoteka ezin ordaindu dabilen, nolako jantziak daramatzen, daraman bizimoduarekin gero hil bukaeran gaizki ibiltzea normala dela pentsatu gabe egin behar dugu klase-kontzientzia berreskuratzeko ahalegina.

Yolanda Barcinak esan zuen:

«Miguel Sanzek bezainbeste diru irabazi nahi dut». Ez da Barcinarena arazoa, ez zen Sanzena Urralburuk adina irabazi nahi izatea, ez Imazena Ardanzak adina, ez Ardanzena Gonzalezek adinaren ezinagatik zaputza. Arazoa ez da ez Urkullurena, Jimenezena edo Lopezena. Arazoa da gutako bakoitzak ez ote dugun beste norbaitek «bezainbeste» irabazteko enbeia lehia, jelosia, asegaiztasuna.

«Klase barneko elkartasuna berreskuratu behar dugu» ere idatz zezaketen txosten hartan.

«Norberarengandik hasten da iraultza», irakurriko genuen hamaikatxotan.

«Pertsona kontzientzia berreskuratzeko esfortzua egin behar dugu», idatziko nuke nik.

Berrikas dezagun ongi bizitzen, duintasunez, egunero gehiago lortu nahi izan gabe, gainerako gizakiekiko eta naturarekiko harmonian (kirrinka?).

Gabriel Arestik Zorrotzako portuan antzera, egin dezagun guk ere pertsonaren aldeko hautua, Gilenen aldekoa eta Anttoniren aldekoa.

Borroka gaitzen gure izaki-kontzientzia berreskuratzeko.

Azken hitz

Amaitzeko, Peru Iparragirreraren idazki bat: gaur egungo egoeraren argazki gordina ez ezik, etorkizunari esperantzazko zirritu bat ere irekitzen dio.

Angst (larrimina) 2. atala [interlude: réalité]

~~[Bien bitartean, errealtitate gordina aurrera ziboan, gupidagabe]~~

Gorbata, soinekoa, galtzak,
galtzontziloak buruan, txikien moduan,
kuleroak tiragomatzat mehatzetako langileek,
polizari erantzun.
Telebistan, irratian ez da ezer entzun.
Grexian gosez hiltzen dira haurrak,
supermerkatuetan ezin eros dezakete bazka
dirurik ez dutenek,
beriotzaren aurrean, diruak asko balio duela argi utzi digute.
Bizitzak gutxiago balio du,
burtsan eros daitezke:
etxeak,
etxean bizirik direnen soldatak,
gosariak, bazkariak, afariak,
ikasketak, erretiroak
erosi erosten dira,
poliziak bizilagunaren etxeko atea bota du,
sartu dira,
dena bere lekuan dago,
dena lasai,
dena isil,
zapaltzen dute moketa botekin,
beraien ezkutua eta jantzi berezietan

korridorean aurrera doa,
musika entzuten da,
Requiem berria
desobedientzia zibila,
bakerik ez sistema hau desagertu arte,
nork nahi du aberastu gorpu meta baten truke?
Boteke zorua zapaltzean zarata egin dute,
bikotearen gelako atea itxita dago,
atean,
etxe gabetze aginduaren gainean
gutun bat margotuta,
agente drogatuek ikusiko ez dutena,
ireki dute atea,
ikusi dutena beldugarria da,
lotsagarria,
orain konturatu dira
nola dagoen eraikia sistema,
nolakoa den ondo funtzionatzen duenean,
nola beti berberak diren etxejabe ustelenak,
beti berberak kalean etxerik gabe,
dirurik gabe,
eskean daudenak,
edo esklabo
beste herrialde batean,
esklabo begien bistatik urrun.
Goizero doazenak ilaran
eskolara, lanera.
Errutina laster bukatuko da.
Depresio soziala,
gainbehera kulturala, emozionala, ekonomikoa.
Eta alderantziz.

Milesker guztiei zuen arretagatik. Dagoeneko hitzak
Kantauriko kresalarekin nahasi dira.

Fresneseko sarraski espetxean, 2013ko ekainean

Mikel Antza

Bibliografia

Rafael Correa Ekuadorko presidenteari elkarrizketa. 2013ko apirilaren 28ko BERRIAN.

Malbe. Maixol Iparragirre eta Joseba Garitonaindia. Auto-edizioa (2008).

Celestino Uriarte. Juan Ramon Garai. Txalaparta argitaletxea. (2006).

Un resumen completo de 'El capital de Mar'. Diego Guerrero.
<http://laberinto.uma.es>

Hitzaldiak. Gabriel Aresti. Susa (1986).

'Nomada galdua' bloga. Peru Iparragirre.

Euskal Herria bezkuntzatik eraikiñ. Ikasle estrategia. Ikasle Abertzaleak. (2013)

zaldiarri·4